

Etxean hil zen [ama](#). Bere betiko ohean. Familian. Gordina izan zen agurra baina geurea, geure-geurea dena. Bizitza hutsa. Heriotzan ere. Tanatorioko langileak etorri ziren arte. Artean gorpua epel, objektu baten gisara eraman zuten eta ezarri denek ikus zezaten beilategian kristalaz bestaldera, beneratu beharreko trofeoa nola. Jende zaratatsuegiaren aurrean. Intimitaterik gabe.



Xuharri zilbor hestea ebakitzeko unea

Etxean jaio zen orain gutxi Xuhar. Bere betirako ohean. Familian. Gordina izan zen agurra, gogorra erditzea. Baina geurea, geure-geurea izan zen dena. Bizitza hutsa. Jaiotzan. Sinetsita prestatuta geundela gure kasa etxean erditzeko. Intimitatean. Lekurik goxoenean. Errito baten modura. [Magale](#)ko Josune eta Clara emaginen laguntza eta babes ezinbestekoarekin, [Alazne Apalantzaren Meitaimaitie](#)ko aurreprestaketa eta intxaurrekin.

Ulertzen zaila dena da zergatik ez den hemen aukera publikoa etxean erditzea. Erditze segurua izatera doazen emakumeak ez baitaude gaixo eta ospitalera joan beharrean. Emakume bakoitzak aukeratu beharko luke etxean ala ospitalean erditu nahi duen. Zerk-nork ematen dion ziurtasuna eta konfiantza. Baina aukera batek besteak bezain zilegi izan beharko luke eta laguntza publikoa berdin jaso. [Munduko beste herrialde batzuetan bezala](#), gure haurrak non jaioko diren erabaki ahal izan dezagun.

Zabaldu:

etzi.pm

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)